

UDA-BERRIYA



Uda berri gozoa
danian etortzen
zer atsegintasunak
diraden sentitzen!
Eguzkiya oso goiz
asten da jaikitzen
eta bere printzakin
bazterrak argitzen,
errañu denak ditu
medartu ta urzen
dirala denak ezer-
ezera biurtzen.

Zeru zabal urdiña
oso da agertzen,
choriyak asten dira
pozturik kantatzen

eta Egilleari
eskerrak ematen.
Michirrika churiyak
eguak zabaltzen
eta lore tartean
gustora egatzen,
guri guri kanpuak
dira bada jartzen
goiko gozotasuna
dutelako artzen,
nekazariyak ere
dirade poztutzen
kanpoari begira
ez dira aspertzen,
Jaun onak, zenbat grazi
dizkigun bigaltzen!

JOSÉ ARTOLA.

